Egitaraua 2022

Dibulgazio ekintzak IAN-ANI

Rosalia alpina
Ilustr. Beatriz Alonso

Instituto Alavés de la Naturaleza
ian ani
Arabako Natur Institutua

2022 Ekintzeen Egitaraua

URTARRILA						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	**29**	30
31						

OTSAILA						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	**18**	19	20
21	22	23	24	25	**26**	27
28						

MARTXOA						
	1	2	3	4	5	**6**
7	8	9	10	11	12	**13**
14	**15**	**16**	**17**	**18**	**19**	**20**
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

APIRILA						
				1	**2**	3
4	5	6	7	**8**	**9**	**10**
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	**23**	24
25	26	27	28	29	30	31

MAIATZA						
						1
2	3	4	5	6	7	**8**
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	**21**	**22**
23	24	25	26	27	28	**29**
30	31					

EKAINA						
		1	2	3	4	**5**
6	7	8	9	10	**11**	12
13	14	15	16	17	**18**	**19**
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

UZTAILA						
				1	**2**	**3**
4	5	6	**7**	**8**	**9**	**10**
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ABUZTUA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

IRAILA						
			1	2	3	4
5	6	7	8	**9**	**10**	11
12	13	14	15	**16**	**17**	**18**
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	**30**		

URRIA						
					1	2
3	4	5	6	**7**	**8**	9
10	11	12	13	**14**	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	**28**	**29**	30
31						

AZAROA						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	**11**	**12**	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	**25**	**26**	27
28	29	30				

ABENDUA						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	**16**	**17**	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

			Orr.
URTARRILA	29	*Faunaren presentzia eta identifikazioa bere aztarna eta seinaleen bidez*	03
OTSAILA	18	*Xavier de Arizaga belartegi digitalaren mintegian izen ematea (HDXA)*	03
	26	*Botanikaren tailerrak-1: Gimnospermak*	03
MARTXOA	06	*Ibilaldi gidatua arteen eta pagoen artean*	04
	13-20	*Belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Portugaleko Narcissus-ak*	04
	20	*Ibilaldi ornitologikoak I*	05
APIRILA	02	*Gasteizko Mendietako anfibioen dibertsitatea esagutzeko gaueko irteera*	05
	08-10	*HDXAko 1. irteera: "Narcissus hibridoak"*	05
	23	*Ibilbide zirkularreko pasealekua, Zabalgañako basoan zehar (Argomaniz)*	06
MAIATZA	08	*Ibilaldi ornitologikoak II*	06
	21-22	*HDXAko 2. irteera: "Erodium paularense, Borobiako urmaela eta Bigorniako mendia"*	06
	29	*Minimaratoi ornitologikoa*	07
EKAINA	05	*Ibilaldi ornitologikoak III*	07
	11	*Apuntea, sketch-a, naturaren bozeto azkarra*	07
	18-19	*"San Juan ukendu" tradizionala egiteko tailerra*	08
UZTAILA	02-03	*HDXAko 3. irteera: "Zohikaztegiak Burgosen"*	08
	07-10	*HDXAko 4. irteera: "Erdialdeko Pirinioak"*	08
IRAILA	09-10	*Tailerra + Irteera onddoak I*	09
	16-17	*Tailerra + Irteera onddoak II*	09
	18	*HDXAko 5. irteera: "Q. petraea eta hibridoak Barambion"*	10
	30	*Botanikaren tailerrak-2: Landare loredunen zehaztapena (fanerogamoak)*	10
URRIA	01	*"Hegaztien eguna": migrazioa Orreagan*	11
	07-08	*Tailerra + Irteera onddoak III*	11
	14	*Botanikaren tailerrak-3: Iratze eta ekisetoen zehaztapena (kriptogama baskularrak)*	12
	28-29	*Tailerra + Irteera onddoak IV*	12
AZAROA	11-12	*Tailerra + Irteera onddoak V*	13
	25-26	*Tailerra + Irteera onddoak VI*	13
ABENDUA	16-17	*Tailerra + Irteera onddoak VII*	14

Urtarrila

Larunbata | 29

Faunaren presentzia eta identifikazioa bere aztarna eta seinaleen bidez

Inguru bateko fauna ezagutzeko modu ona izaten da beraien aztarnei eta arrastoei erreparatzea.
Besteak beste ondoko hauek behatuko ditugu: ikusteko zailak diren gaueko ugaztunak, gaueko hegaztiak, egagropilak, hegaztien elikadura-hondarrak fruituetan, gorotzak...

ANTOLATZAILEA: Norber Fuente
PLAZAK: 15
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Otsaila

Ostirala | 18 | 19:00 h

Xavier de Arizaga belartegi digitalaren mintegian izen ematea (HDXA). Fanerogamia

Flora espezieak argazki bidez jasotzeko eta belartegi digitalaren kolekzioa handitzeko lantalde bat sortzea. Helburu hori lortzeko, partaideek urtean zehar garatuko diren 5 irteeretan parte hartzeko aukera izango dute. Irteerek, urte hasieran zehazten den programa jarraituko dute, egun beteko edo asteburuko irteerak izango dira, eta joan-etorriak partaideen kotxeetan egingo dira. Irteeretan parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea eta lantaldeko kidea izatea. Ikusi belartegiaren garapena ANIren web-gunean.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia
PLAZAK: 15
MATRIKULA: bazkideak 10 euro /ez bazkideak: 20 euro

Larunbata | 26

Botanikaren tailerrak-1: Gimnospermak

"Hiriko parkeetako koniferoen bisita eta identifikazioa"

Gasteizko hiri-parke batzuk bisitatuko ditugu: Santa Isabel hilerria eta Arriagako parkea. Urte guztian gurekin batera izaten diren izaki bizidun dotore hauetara hurbilduko gara, garai honetan hosto berdeak baitituzte. Espezie ugari ikusiko ditugu. Beraien ezaugarri morfologikoak azaltzea, argazkiak ateratzea eta lagin txiki batzuk hartzea izango dira bertan egingo ditugun ekintzak. Ondoren, laborategian gako dikotomikoak erabiliz espezie desberdinak identifikatuko ditugu eta horiei buruzko informazioa bilduko dugu sarean.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia
PLAZAK: 15
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Martxoa

Igandea | 06

Ibilaldi gidatua arteen eta pagoen artean

Aguillotik, Trebiñu Konderriko herritik, abiatzen den ibilbidea egingo da, artadi zoragarri batzuetatik igarotzen dena. Bertan, ehun urtetik goragoko pago zoragarri batzuek gogorarazten digute Vitoria-Gasteiztik 15 km eskasera gaudela. Uraren jarioa izango dugu bidelagun sortzen diren ur-jauzi txikiekin batera. Arnako herrixka egon zen tokia ere ikusiko dugu, gaur egun hutsik dagoena. Ondoren, Ajarteko ur-jauzi ederra bisitatuko dugu, ibilbidearen hasierara bueltatu arte.
Ibilbidea gidatua izango da eta geldialdiak egingo dira ingurunea interpretatzeko, interes botaniko, faunistiko, eta etnografiko handiko eremuak baitaude.

ANTOLATZAILEA: Andoni Llosa
PLAZAK: 15
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro



Igandea | 13 » *Igandea* | 20

Belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Portugaleko Narcissus-ak

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren ez ohizko irteera"

Portugaleko iparralderuntz abiatuko gara, Zamoratik sartuz, **Narcissus**-eko Ganymedes sekzioaren ikasketa bukatzeko. Bizitokian bertan behatzeaz gain aztertzeko laginak ere jasoko ditugu. Porto inguruetatik eta Estrela mendizerratik pasatuko gara eta Extremaduratik aterako gara, bide batez, Gata mendizerran orain dela gutxi deskribatu diren hibrido batzuk ikusteko asmoz, ***N. x gatensis*** adibidez.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia
PLAZAK: lehentasuna HDXAren mintegian apuntarik daudenek
MATRIKULA: Gastuak denon artean



Narcissus triandrus

Martxoa

Igandea | 20

Ibilaldi ornitologikoak I

"Hegaztien kantuak"

Hiru irteera egingo ditugu eraztun berdean zehar. Bertan aurkituko ditugun hegaztiak identifikatuko ditugu, batez ere beraien kantuari erreparatuz, baina baita beraien portaerari eta habitatari arreta eginez.

ANTOLATZAILEA: Begoña Nogueiras

PLAZAK: 10

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Pitxartxar burubeltza

Apirila

Larunbata | 02 | gauez

Gasteizko Mendietako anfibioen dibertsitatea esagutzeko gaueko irteera

Gasteizko Mendien iparraldeko isurialdean gaueko ibilbidea egingo da, bertako anfibioak behatzeko. Inguru honetan fauna talde honi eragiten dioten eritasun berriak detektatzeko, laginak hartuko dira. Horretarako protokolo estandarizatu bat erabiliko da. Baldintza meteorologikoen araberako irteera –tenperatura, haize eta hezetasun egokiak.

ANTOLATZAILEA: Conrado Tejado Lanseros

PLAZAK: 8

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Arrubioa

Ostirala | 08 » Igandea | 10

HDXAko 1. irteera: "Narcissus hibridoak"

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 1. irteera"

Irteera honetan bi nartziso hibridoren bila eta beraiei argazkiak ateratzera joango gara: lehendabiz, ***N. x stenanthus*** (***N. confusus x bulbocodium***), Moncayoko monasterioaren inguruetan eta Soriatik gertu dagoen Valonsadero mendian. Aipaturiko bi toki hauetan ahaideen artean bizi baitira.
Bigarren narzisoa topatzeko, Alpartirreko herrira (Z) abiatuko gara. Bertan ***N. cantabricus***-eko banaketa-eremuaren mugan, ***N. coronatus*** eta ***N. dubius*** ere bizi dira.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik

Narcissus x litigiosus

Apirila

Larunbata | 23

Ibilbide zirkularreko pasealekua, Zabalgañako basoan zehar (Argomaniz)

Zabalgañako basoa ezagutzeko eta behatzeko ibilbidea da hau. Horretarako duela gutxi bertan kokatu diren informazio txartelak aprobetxatuko dira. Txarteletan agertzen diren landareak zein hegaztiak behatzea dugu helburua. Hegaztien kasuan beraien txioei arreta berezia eskainiko zaie.
Bestalde, baso-irlen garrantzia azalduko da eta adibide gisa ehun urtetik gorako zuhaitz motzak ikusteko aukera egongo da. Baso honetan hain zuzen ere fototranpeo lana eraman da aurrera eta horri esker lautadan ikusteko zailak diren animaliak ikustea lortu da.
Ibilbidearen iraupena: 2h.

ANTOLATZAILEA: Norber Fuente

PLAZAK: 15

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Maiatza

Igandea | 08

Ibilaldi ornitologikoak II

"Hegaztien kantuak"

Hiru irteera egingo ditugu eraztun berdean zehar. Bertan aurkituko ditugun hegaztiak identifikatuko ditugu, batez ere beraien kantuari erreparatuz, baina baita beraien portaerari eta habitatari arreta eginez.

ANTOLATZAILEA: Begoña Nogueiras

PLAZAK: 10

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Buztanzuri arrunta

Larunbata | 21 » Igandea | 22

HDXAko 2. irteera: "Erodium paularense, Borobiako urmaela eta Bigorniako mendia"

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 2. irteera"

Irteera honetan, ***Erodium paularense***-ren bizitoki ezagun batzuk bisitatzen saiatuko gara. Landare hau P. Ibericaren erdialdeko endemismo nabaria da, Moncayoko mendietaraino iristen dena. Borobiako urmaelera eta Bigorniako tontorrera ere joango gara. Azkenengo honetan ***Astragalus danicus*** eta ***Ononis rotundifolia*** bezalako landare interesgarriak aipatu baitira.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik

Ononis rotundifolia

Maiatza

Igandea | 29

Minimaratoi ornitologikoa

Jarduera ez-lehiakorra, Iribarriko urtegiaren inguruan hegazti-espezie gehien detektatzeko. Marietan hasiko dugu ibilbidea, eta, inguruko harizti eta landazabaletan ibili ondoren, urtegira hurbilduko gara. Urtegiaren ertzetan, Mendixurreko Ikaztegien behatokian bukatuko dugu. Horrela, espezie habiagileen aniztasuna ezagutuko dugu gure ingurune hurbilenean, eta espezie horiek ikusteko eta entzuteko identifikatzen lagunduko diguten jarraibideak ikasiko ditugu.

ANTOLATZAILEA: José Antonio Gainzarain

PLAZAK: 12

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Kaio hankahoria

Ekaina

Igandea | 05

Ibilaldi ornitologikoak III

"Hegaztien kantuak"

Hiru irteera egingo ditugu eraztun berdean zehar. Bertan aurkituko ditugun hegaztiak identifikatuko ditugu, batez ere beraien kantuari erreparatuz, baina baita beraien portaerari eta habitatari arreta eginez.

ANTOLATZAILEA: Begoña Nogueiras

PLAZAK: 10

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Txantxangorria

Larunbata | 11

Apuntea, sketch-a, naturaren bozeto azkarra

Apunte bat zirriborratzen ikastea, behatutakoaren edo sumatzen dugunaren informazioa nola gorde, marrazketa naturalistako zirriborroaren oinarrizko kontzeptuak eta gure landa-koadernoan erregistratzeko hainbat trikimailu ikusiko dira.

ANTOLATZAILEA: Norber Fuente

PLAZAK: 15

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Ekaina

Larunbata | 18 • *Igandea* | 19

"San Juan ukendu" tradizionala egiteko tailerra

San Juan ukendua "dena sendatzeko" balio duen pomada horietako bat da, sendabelar ugarirekin egina.
Gaur egun, hainbat bertsio daude; gure kasuan, dagoen literaturaren azterketa kritikoa burutu ondoren, elaborazio klasikoenera mugatzen saiatuko gara.
Era berean, ahalik eta kalitate handieneko osagai ekologikoak erabiliko ditugu. Larunbatean, ekainak 18, ukendua egiteko landareak jasoko ditugu Gasteizko inguruetan. Landareak biltzeko ordutegia eguraldiaren araberakoa izango da. Igandean, 19an, 10:00etatik-13:00etara, ANI-ren egoitzan bilduko gara ukendua egiteko.
Aire zabalean edo egokitutako gela batean egitea baloratuko da, eguraldiaren eta segurtasun neurrien arabera.

ANTOLATZAILEA: Ángel García Soleto eta Unai García de Madinabeitia Ortiz de Zárate

PLAZAK: 10

MATRIKULA: bazkideak 6 euro /ez bazkideak: 10 euro

Uztaila

Larunbata | 02 » *Igandea* | 03

HDXAko 3. irteera: "Zohikaztegiak Burgosen"

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 3. irteera"

Irteera honetan Ebroko urtegiaren inguruan dauden Burgoseko zohikaztegi eta hezegune interesgarrietara hurbilduko gara. Garai glaziarretako ingurune errelektikoak baitira eta landare esanguratsu ugari dituzte: ***Drosera*** sp., ***Utricularia minor***, ***Pilularia globulifera***, ***Menyanthes trifoliolata***, ***Aristavena setacea***, ***Lycopodiella inundata***, etab.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik



Drosera intermedia

Osteguna | 07 » *Igandea* | 10

HDXAko 4. irteera: "Erdialdeko Pirinioak"

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 4. irteera"

Frantziako Pirinioetako goiko altueretan jartzen gaituzten udako erremonteen logistika aprobetxatuz , mendi horien goiko kotetara iritsiko gara. Bertako paisaia eta flora zoragarriak dira. Gailurrak, harkaitzak, glerak, hezeguneak, ibiak, elurzuloak eta abar bisitatuko ditugu, eta landare alpetar eta subalpetar askori argazkiak ateratzen saiatuko gara.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik

Iraila

Ostirala | 09 *(tailerra)* • **Larunbata** | 10 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak I

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak I"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.
Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.
Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.
Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu.
Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia
PLAZAK: 16
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Calvatia utriformis

Ostirala | 16 *(tailerra)* • **Larunbata** | 17 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak II

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak II"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.
Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.
Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.
Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu.
Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia
PLAZAK: 16
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro


Russula virescens

Iraila

Igandea | 18

HDXAko 5. irteera: "Q. petraea eta hibridoak Barambion"

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 5. irteera"

Udazkeneko irteera hau haritz albarra edo ***Q. petraea*** aurkitu daitekeen basoak bisitatuko ditugu. Espezie honetako ale puruei eta beste haritz batzuekin (***Q. pyrenaica***, ***Q. robur***, ***Q. faginea***, etab.) sortutako hibridoei argazkiak ateratzen saiatuko gara.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik

Quercus petraea

Ostirala | 30

Botanikaren tailerrak-2: Landare loredunen zehaztapena (fanerogamoak)

Tailer honetan gure flora osatzen duten familia nagusien landare fanerogamoen aleak sailkatzen arituko gara. Horretarako, gure liburutegian dauden gako dikotomiko ilustratuak erabiliko ditugu, baita material optikoa ere (eskukoa eta laborategikoa).
Familia bakoitza ondo identifikatzeko behar diren ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu.

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia

PLAZAK: 15

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Taraxacum obovatum

Urria

Larunbata | 01

"Hegaztien eguna": migrazioa Orreagan

ANTOLATZAILEA: José María Fernández

PLAZAK: 10

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Kurrilo arrunta

Hegaztien migrazioa naturako fenomeno deigarrienetariko bat da. Milioika ale mugitzen dira batera ugalketa-eremuetatik negupasa-eremuetara. Ibilbidean oztopo orografikoak zeharkatzen dituzte eta pasabide onenetan kontzentratzen dira. Pirinioak zailtasun ikaragarria dira Europa kontinentalaren, Iberiar penintsularen eta Afrikaren artean mugitzen diren espezieentzat. Pirineoetako mendebaldeko sektorea hain malkartsua ez denez, espezie askotako milaka hegaztik aprobetxatzen dute bertatik zeharkatzeko.
Iraila eta urria bitartean, batez ere, zenbait mendate zeharkatze horren behatoki pribilegiatu bihurtzen dira eta hegaztiak zentsatzeko ere erabiltzen dira. Hala, behatoki apartak izateaz gain jarripen eta ikerketa zientifikorako ere toki ezinhobeak dira.
Gune pribilegiatu horietako bi Lindus eta Ibañeta dira, Orreagatik gertu, Nafarroan. Hala ere, migrazio-fluxuan eragina du eguraldiak, eta, beraz, egun jakin batzuk beste batzuk baino askoz hobeak dira behaketarako. Orreagara joango gara, migrazioa behatzera eta hegaztien zenbaketaz arduratzen diren ornitologoekin eguna partekatzera.

Ostirala | 07 *(tailerra)* • Larunbata | 08 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak III

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia

PLAZAK: 16

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Phlebia

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak III"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.
Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.
Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.
Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu. Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

Urria

Ostirala | 14

Botanikaren tailerrak-3: Iratze eta ekisetoen zehaztapena (kriptogama baskularrak)

Iratzeak eta ekisetoak identifikatzen ikasteko tailerra. Horretarako, laborategian gure florako iratze arruntak aztertuko ditugu; beraien ezaugarri nagusiak behatuz, izendatuz eta aztertuz. Horretarako, gure liburutegian dauden gako dikotomiko ilustratuak erabiliko ditugu, baita material optikoa ere (eskukoa eta laborategikoa).

ANTOLATZAILEA: Pello Urrutia
PLAZAK: 15
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Blechnum spicant

Ostirala | 28 *(tailerra)* • **Larunbata** | 29 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak IV

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak IV"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregana-natuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.

Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.

Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.

Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu. Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia
PLAZAK: 16
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro



Marasmius rotula

Azaroa

Ostirala | 11 *(tailerra)* • **Larunbata** | 12 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak V

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak V"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.
Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.
Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.
Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu.
Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia
PLAZAK: 16
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Pleurotus ostreatus

Ostirala | 25 *(tailerra)* • **Larunbata** | 26 *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak VI

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak VI"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.
Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.
Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.
Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu.
Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia
PLAZAK: 16
MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro


Mollisia

Abendua

Ostirala | **16** *(tailerra)* • **Larunbata** | **17** *(irteera)*

Tailerra + Irteera onddoak VII

"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak VII"

Mikologiaren sarrera jarduera hau, onddo askomizetoak eta basidiomizetoak ezagutzeko prestatu dugu. Jarduera honetan, tailerren eta irteeren bitartez ezagutza guregatuko dugu. Onddo hauek zehazki zer diren, zer funtzio betetzen duten, non eta nola bizi diren eta zein genero eta espezietakoak diren argitzen saiatuko gara, ezaugarri makroskopiko, mikroskopiko eta organoleptikoen bitartez.

Gure arau nagusia, natura errespetatzea izango da, beti ere lurralde bakoitzaren araudia kontuan hartuz.

Irteera honen helburua ikastea izango da, hortaz ez ditugu onddoak bilduko kopuru handitan.

Onddoak biltzeko, ikasteko edo dastatzeko teknika batzuk behar direla argi dago, eta hauek ikasiko ditugu. Honezkero, zatozte gurekin onddoen mundo zoragarria ezagutzera!

ANTOLATZAILEA: Alfonso López de Armentia

PLAZAK: 16

MATRIKULA: bazkideak 3 euro /ez bazkideak: 6 euro

Craterellus cinereus

Cordiceps militaris

Auriculariopsis ampla (Lév.) Maire

Ilustr. Antonio González Gómez

ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA

Ekintza bati buruzko argibide zehatzak eskuratzeko eta izena emateko (gutxi gorabehera **hilabete bat** lehenagotik):

webgunean sartu (www.ian-ani.org)

(ikus **Hurrengo ekintzak** hasiera-orrian edo Ekintzak atala; izena emateko orria ekintza bakoitzaren deskribapenaren bukaeran dago): lehenesten dugun bidea, 945 246606 telefonora deitu edo gure egoitzara jo (UNED eraikina, Pedro Asua, 2-3.a; bisitarientzako ordutegia: ostiraleko 19:00etatik 20:30etara, jai-egunetan, -zubietan eta -bezperetan izan ezik).

Arren, behar beharrezkoa ez bada,
ez nazazu inprimatu.

Instituto Alavés de la Naturaleza
ian ani
Arabako Natur Institutua



Narcissus minor ssp. *brevicoronatus*

Narcissus minor ssp. *exiguus*